

ORO (GIPUZKOA) – GOROETA



KOKAPENA


2017-18ko Xendazaletasun denboraldiari hasiera emateko Gipuzkoara gerturatuko gara. Kasu honetan, Oroko herrixkara, Aretxabaletako auzo altuetara hain zuzen ere.

Bailara hau Daba goienaren parte da. Gipuzkoako mendebaldean dagoen eskaldea da, euskadiko erdigune geografikoan kokatua Bizkaia eta arabarekin muga eginez.

DESKRIBAPENA

Jaurdunaldia erosoak diren bideetatik igaroko da pixkanaka berotan sartzeko. Urkuluko urtegiari buelta emango diogu gure helburuari heltzeko, Goroetako herrixkara heltzea.

Guztira, hamar bat kilometro egingo ditugu eta laureun bat metro desnibel ere. Zailtasun ertaineko irteera izango da.



IBILBIDEA

KM 0 Oroko auzotik, hego-ekialdeko norabidean ibiltzen hasiko gara urtegiaren ur bazterraren bila.

KM 1 Behin ur-bazterraren bidean gaudela, norabidea aldatuko dugu. Hainbat kilometrotan ekialderuntz abiatuko gara. Une oro urtegiaren ondoan gaudela.

KM 4 Puntu honetan, urtegiaren murraren ondotik gurutzatuko dugu hego norabidea hartzeko. Ur bazterretik jarraituko dugu.

KM 6 Beste bide-gurutze batera helduko gara, bertan ibilbidearen norabidearen aldaket egin beharko dugu berriz ere. Puntu honetan hainbat bide batu egiten dira, hain zuzen: Arkarazora, Mendiolarra eta Aretxabaletara jeisten direnak. Gure kasuan iparraldera joko dugu.

KM 8 Gure helburura gerturatzen hasiko gara eta hainbat baserri gurutzatzen hasiko gara: Itxasmendi, Errekabitarre eta Mendieta adibidez.

KM 10 Goroetara helmuga, bertan Gasteizera eramango gaituen autobusa izango dugu itxaroten. Arropaz lasai aldatzeko denbora izango dugu ere.